


# Koloreak biraka

## Nola ikusten ditu begiak oso azkar mugitzen diren koloreak?

### Materialak

- Erregela bat
- Arkatz bat
- Kartoizko zirkulu bat
- Koloretako bi errotuladore
- Guraizeak



### Zer egin

1. Erregela erabiliz, egin lerro zuzen bat zirkuluaren eskuinetik ezkerrera, erditik igarota, eta beste bat goitik behera, hori ere erditik igarota.
2. Margotu errotuladorez zirkuluaren atalak, koloreak txandakatuta.
3. Erabili guraizeen punta zirkuluaren erdian zulo bat egiteko. Arkatza sartzeko bezain handia izan behar du zuloak.
4. Sartu arkatzaren punta zulotik, eta egin bultza; zati puntaduna margotu gabeko aldean geratu da.
5. Eman bueltak arkatzari esku artean jarrita, eta erreparatu koloreei. Zer gertatu da?

### Zer gertatzen da?

Zirkulua oso azkar biratzen denean, zure begiek ezin dituzte ikusi koloreak bereizirik. Horren ordez, zirkuluko koloreen nahaste bat den kolore bat ikusten dute. Ikusten duzun kolorea erabili dituzun errotuladoreen kolorearen araberakoa da. Arrazoi beragatik dirudite filmek oso errealistak, nahiz eta argazki berezietan egiten diren. Filma oso azkar mugitzen da, eta gure begiek ezin dituzte hauteman irudiak banaka; hala, etengabe mugitzen diren eszena moduan ikusten dugu.

